



Txus Arrieta, Mikel Babiano, Nerea Gujarrubia, Aitor Fernandez de Martikorena eta Gorka Azkarate. IGARTUBEITI

Txus Arrieta elorriotarrak irabazi du Igartubeitiko kontakizun lehiaketa

Gorka Azkarate urretxuarrak bigarren saria lortu du eta Mikel Babiano herrikideak aipamen berezia

Asier Zaldúa Ezkio-Itsaso

Txus Arrieta elorriotarrak irabazi du Igartubeiti baserriko lehen kontakizun lehiaketa, *Upelak daraman bidea* lanarekin. Bigarren saria Gorka Azkarate urretxuarrak irabazi du, *Igartubeitiko sorginak ipuinarekin*. Mikel Babiano urretxuarrak, Aitor Fernandez de Martikorena eta Nerea Gujarrubia aipamen bereziak jaso dituzte.

Lehiaketa Areago egitasmoaren barne antolatuta dute. Igartubeitira joaten direnek Arantxa Iturbek eta Maialen Lujanbiok idatzitako istorioak entzuteko au-

kera dute eta aurki lehiaketan saritutako ipuinak ere entzuteko moduan jarri nahi dituzte. Bestalde, martxotik aurrera gaztelerazko ipuin bat entzuteko aukera egongo da. Arkaitz Cano ari da kontakizun hau idazten.

Kizkitza Ugarteburu Igartubeitiko arduraduna «oso gustura» ageri da lehiaketak izan duen harrearekin. «Balorazioa positiboa da. Lehiaketaren lehen edizioa da eta ez genuen horrenbeste lan jasotzea espero. Gainera, kalitate onekoak dira. 20 lagunek idatzitako 23 kontakizun jaso ditugu», azaldu du.

Egitasmo honen arrakasta ikusirik, datorren urtean ere lehiaketa antolatzeko asmoa dute. Lehengo, aurtengo ipuin onenak entzungai jarri nahi dituzte. «Gure asmoa saritutako bost ipuinak entzungai jartzea da, baina teknikoek esan beharko dute posible den edo ez».


Bostak *igartubeitibaserria.net* webgunean irakur daitezke dagoeneko. Irabazleak idatzi duen ipuina Pasaiatik Igartubeiti baserri eta Igartubeititik itsasora bidaiatuko duen sagardo kupel bati buruzkoa da.

Azkarateren iritzia

Azkarateren kontakizuneko protagonista, berriz, Igartubeitiko Kattalin Kortabarria da. Sorginkeria leporatuko diote, eta ihes egingo du.

Azkarate ere «pozik» ageri da: «Ez dut lehiaketetara aurkezteko ohiturarik, baina hau polita iruditu zitzaidan eta berehala ideia pare bat bururatu zitzaizkidan», aipatu du.

Gainera, Urretxuko bertsolariak Ezkio-Itsasoko Igartubeiti baserria oso ondo ezagutzen du. «Igartubeitira joan izan gara bertsoak abestera. Oso toki berezia da», esan du.



Txus Arrieta, Mikel Babiano, Nerea Gujarrubia, Aitor Fernandez de Martikorena eta Gorka Azkarate. IGARTUBEITI

Txus Arrieta elorriotarrak irabazi du Igartubeitiko kontakizun lehiaketa

Gorka Azkarate urretxuarrak bigarren saria lortu du eta Mikel Babiano herrikideak aipamen berezia

Asier Zaldúa Ezkio-Itsaso

Txus Arrieta elorriotarrak irabazi du Igartubeiti baserriko lehen kontakizun lehiaketa, *Upelak daraman bidea* lanarekin. Bigarren saria Gorka Azkarate urretxuarrak irabazi du, *Igartubeitiko sorginak ipuinarekin*. Mikel Babiano urretxuarrak, Aitor Fernandez de Martikorena eta Nerea Gujarrubia aipamen bereziak jaso dituzte.

Lehiaketa Areago egitasmoaren barne antolatuta dute. Igartubeitira joaten direnek Arantxa Iturbek eta Maialen Lujanbiok idatzitako istorioak entzuteko au-

kera dute eta aurki lehiaketan saritutako ipuinak ere entzuteko moduan jarri nahi dituzte. Bestalde, martxotik aurrera gaztelerazko ipuin bat entzuteko aukera egongo da. Arkaitz Cano ari da kontakizun hau idazten.

Kizkitza Ugarteburu Igartubeitiko arduraduna «oso gustura» ageri da lehiaketak izan duen harrekin. «Balorazioa positiboa da. Lehiaketaren lehen edizioa da eta ez genuen horrenbeste lan jasotzea espero. Gainera, kalitate onekoak dira. 20 lagunek idatzitako 23 kontakizun jaso ditugu», azaldu du.

Egitasmo honen arrakasta ikusirik, datorren urtean ere lehiaketa antolatzeko asmoa dute. Lehengo, aurtengo ipuin onenak entzungai jarri nahi dituzte. «Gure asmoa saritutako bost ipuinak entzungai jartzea da, baina teknikoek esan beharko dute posible den edo ez».

Bostak *igartubeitibaserria.net* webgunean irakur daitezke dagoeneko. Irabazleak idatzi duen ipuina Pasaiatik Igartubeiti baserri eta Igartubeititik itsasora bidaiatuko duen sagardo kupel bati buruzkoa da.

Azkarateren iritzia

Azkarateren kontakizuneko protagonista, berriz, Igartubeitiko Kattalin Kortabarria da. Sorginkeria leporatuko diote, eta ihes egingo du.

Azkarate ere «pozik» ageri da: «Ez dut lehiaketetara aurkezteko ohiturarik, baina hau polita iruditu zitzaidan eta berehala ideia pare bat bururatu zitzaizkidan», aipatu du.

Gainera, Urretxuko bertsolariak Ezkio-Itsasoko Igartubeiti baserria oso ondo ezagutzen du. «Igartubeitira joan izan gara bertsuak abestera. Oso toki berezia da», esan du.